


ezagutzen al duzu Donostia?

Andrestegi

Andrestegi etxea, lehenago baserri izan zena, Ibaeta auzoan kokatzen da. Antiguako Matia kale-tik ez urrun, konportako auzotxoan pasata, Gudamendi pean, Andrestegi ez da baserri zaharra: bere aurrekaldean bere izena eta egia zeneko irtea (1851) agertzen dituen harri landu bat dauka. Txillardegi bere «*Antigua 1900*» liburu politean kontatzen digu etxe hau Udal-baimenekin Antiguako egindako aurreneta-ko baserri-etxe bat zela (agian berritua?), eta bere



egilea eta nagusia Andres Queheille izan zela. Abizen berezia benetan! Gaskoina da abizen hau: «*Queheille*» hitzak, «*langas*», «*sateka*» esan nahi du euskaraz eta honela deitzen zaio Zuberoan soroak ixteko jartzen den ate honi: keheilla. Donostiako

historian keheilletarrak familia donostiar ezaguna izan ziren. Bada beraietako bat alkate izan zena 1893. urtean: Pedro Maria Queheille. Dena dela, dirudienez gaur Keheilletarrik ez zaigu gelditzen Donostian. Izkutatua da familia ospetsu hau. Gaur

Andrestegi botatzean dago eta bere orubeek Ibaetako unibertsitat hiriko kanpusa osatzeko proiektua dago. Beharrezkoa baldin bada Andrestegi botatzea, gure euskal kulturaren oinarri izan dadila.

JOSU TELLABIDE

Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposala

Donostia

Bortuz hainbat satisfaturik itsasoz mengoatea Niberu loetan utzirik burutu dut joatea. Hendaia eta Iruñen gaintik ikustera Donostia, ta ber denboran besarkatzera hango anai maiteak ilusiturik handik horra naiz hain baita xarmangarria.

Urteak zaulu badoaza, laster jinen da berria zeinek ekarriko baitugu arrauz, Donostiar maiteak, bakean esperantzarekin osagarri, pazientzia, aski bertute begiratzeko argi euskaldun fedea Anaiak gira eta izanen, berriz arte, Donostia.

Piarres Bordazarre, Etxahun-Irurik (1907-1979) sortzen zituen bertso hauek, beren doinu eta guztiz gure herriaren omenez, Etxahun hau ez da Pierre Topet Etxahun-ekin nahastu behar. Bigarren honetako balio literario handiagoa du eta XVII-XIX mendeetako da. Baina Etxahun-Irurik hainbat kantaren bitartez euskaldunen sentimentuak astindu zituen (Agur, Niberua, Goizean, argia has-tean...) Badira hogeitaz urte edo gehiago neuk ezagutzeko aukera izan nuenetik, Gizon jator eta harre-ra onekoa, Nirularia gainera, Mendikoteko Maskaradan xirulari zegoen eta donostiarrak ginela jakin zuenez, iluntzean, agurtzeko unean, bere kanta hau abestu zigan.

Denetara hosi bertso dira, nik hona lehenengoa eta azkenekoa besterik ekarri ez badut ere,